



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

208. INFORMAZIO BULETINA

2025eko maiatza



Europar Batasunak
kofinantzatua

Cofinanciado por
la Union Europea

ALBISTEAK

LIFE 2025 deialdiak zabalik.

2025eko apirilaren 24tik daude zabalik.

2025eko apirilaren 24tik LIFE 2025 deialdiak zabalik daude. Itxiera-data aldatu egiten da diruz lagundu daitezkeen proiektuen arabera (2025eko irailetik 2026ko martxora).

Deialdi horien irekiera dela eta, Klimarako, Azpiegituretarako eta Ingurumenerako Europako Agentzia Betearazleak (CINEA) informazio-jardunaldi birtualak egingo ditu maiatzaren 13, 14 eta 15ean, eskatzaile posibleak orientatzeko. Jardunaldi honi buruzko informazio guztia eskuragarri dago [esteka](#) honetan.

LIFE 2025 deialdiaren proiektu motak:

- Ekintza zehatzetarako dirulaguntzak. Azpiprogramen ekintza estandarreko proiektuak (SAP):
 - Natura eta Biodibertsitatea – LIFE-2025-SAP-NAT:
 - Natura eta Biodibertsitatea: [LIFE-2025-SAP-NAT-NATURE](#).
 - Naturaren gobernantza: [LIFE-2025-SAP-NAT-GOV](#).
 - Ekonomia zirkularra eta zero poluzioa – LIFE-2025-SAP-ENV:
 - Ekonomia zirkularra eta zero poluzioa: [LIFE-2025-SAP-ENV-ENVIRONMENT](#).
 - Ingurumen-gobernantza: [LIFE-2025-SAP-ENV-GOV](#).
 - Klima-aldaketa arintzea eta horretara egokitzea – LIFE-2025-SAP-CLIMA:
 - Klima-aldaketa arintzea: [LIFE-2025-SAP-CLIMA-CCM](#).
 - Klima-aldaketara egokitzea: [LIFE-2025-SAP-CLIMA-CCA](#).
 - Gobernantza eta informazio klimatikoa: [LIFE-2025-SAP-CLIMA-GOV](#).
- Naturari buruzko proiektu estrategikoak (SNAP)-LIFE-2025-STRAT-two-stage: [LIFE-2025-STRAT-NAT-SNaP-two-stage](#).
- Proiektu estrategiko integratuak (SIP) – LIFE-2025-STRAT-two-stage:
 - Ingurumena: [LIFE-2025-STRAT-ENV-SIP-two-stage](#).
 - Klima: [LIFE-2025-STRAT-CLIMA-SIP-two-stage](#).
- SIP eta SNAPak prestatzeko laguntza teknikoko proiektuak – LIFE-2025-TA-PP:
 - Naturari buruzko proiektu estrategikoak prestatzeko laguntza teknikoa: [LIFE-2025-TA-PP-NAT-SNaP](#).
 - Ingurumeneko proiektu estrategiko integratuak prestatzeko laguntza teknikoa: [LIFE-2025-TA-PP-ENV-SIP](#).

2025eko maiatza

- Kimaren alarako ekintzarako proiektu estrategiko integratuak prestatzeko laguntza teknikoa: ***LIFE-2025-TA-PP-CLIMA-SIP***.
- Laguntza teknikoa proiektuak erreproduzitzeko: ***LIFE-2025-TA-R***.
- Prestakuntza proiektuak. Legegintza-lehentasunei eta ad hoc politikei heltzen dieten proiektuak: ***LIFE-2025-PLP***.
- Koordinazio- eta laguntza-ekintzak Energia Garbietarako Transtizioa azpiprogramaren esparruan: ***LIFE-2025-CET***.

Eskaerak Europako Batzordearen ataritik aurkeztu behar dira: ***Funding & tender opportunities***.

Informazio gehiago: ***MITECO*** web orrialdea (gaztelaniaz).

Zumaia eta Zestoa artean Narrondo-Iraeta bizikleta eta oinezkoentzako bidea eraikitze obrak lizitatu dira.

Proiektu hau Europar Batasunak finantzatzen du (Next Generation funtsak), Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (BEEP) bidez.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuaren helburuetako bat probintziako herriguneak garraio iraunkorra erraztu eta bultzatuko duten azpiegituren bidez lotzea da, herritarren bizi-kalitatea garatuz eta ingurumen-baldintzak hobetuz.

Obren helburu nagusia Zumaiako Narrondo auzoa Zestoako Arroagoikoa auzoarekin lotzea da.

Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 3.220.462,87 eurokoa da, eta eskaintzak aurkezteko epea 2025ko maiatzaren 19an amaituko da.

Proiektu hau Euskadiko Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Lurralde Planari dagokio, Europar Batasunak finantzatutako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (BEEP) barruan. Zehazki, plan horren 14. osagaiaren barruan (1. inbertsioa), "Turismo-eredua jasangarritasunerantz aldatzea". Europar Batasunaren finantzaketa 1.602.895,00 eurokoa izango da.

Informazioa gehiago: ***Kontratazio Plataforma***

#EuropaSentitzenDa proiektu lehiaketaren deialdia egin da.

Eskaerak 2025eko ekainaren 6ra arte aurkeztu ahal izango dira.

Ogasuneko Ministerioaren Europako Funtsen Zuzendaritza Nagusiak Europako Funtsen Urteko Komunikazio Lehiaketa antolatu du aurreko urtean. Lehiaketaren helburua da Europako funtsek Espainian ematen duten laguntzaren emaitzei eta balio erantsiari buruz herritarrak gehiago kontzientziaztea eta ikusaraztea.

Lehiaketaren helburua da Europako funtsetatik finantzaketa jaso duten proiektuak hautatu, saritu, komunikatu eta zabaltzea. Horien artean daude kudeaketa partekatuko funtsak – EGEF (Europako lurralde-lankidetzaren helburua barne), FSE+, FSI, IGFV, FAMI, FEMPA, FTJ, FEADER eta FEAGA –, bai eta Berreskuratze,

2025eko maiatza

Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko proiektuak ere (BEEP), Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoak (Next Generation – EU) finantzatuta.

Lehiaketa hiru fasetan egituratuko da, **oinarrietan** deskribatzen den bezala, eta azken fasearen amaieran jakinaraziko dira irabazleak. 2025eko urrian egingo da, Santa Coloma de Gramenet herrian, 2025eko Urteko Komunikazio Ekitaldiaren barruan.

Informazioa gehiago: [izena emateko inprimakia](#) (gaztelaniaz)

Aretxabaletako bero sarearen proiektu exekutiboko obrak lizitatu dira.

Proiektu hau Euskadiko 2021-2027 EGEF Programak kofinantzatuko du.

Jasangarritasun Departamentuko Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritza, hainbat lankidetzaren plan eta -esparrutan oinarrituta, hainbat jardura egiten ari da azken urteotan energiaren arloan, lurraldean energia aurrezte eta energia berriztagarrien aprobetxamendua sustatzeko.

Kasu honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA) hondar-beroa aprobetxatzeko proiektu bat sustatzen du, Fagor Ederlanek burdina galdatzeko duen industria-plantatik datorrena, Aretxabaleta Lanbide Eskolan eta Aretxabaletako udalerriko Ibarra Polikiroldegian.

Zehazki, lizitazioaren xede den espedienteak Fagor Ederlan (beroa garraiatzen den tokitik) Aretxabaleta Lanbide Eskolaraino eta Ibarra Polikiroldegiraino (aprobetxatzen den tokiraino) lotzeko beharrezkoa den bero-sareko hodi-sarea zehazten du.

Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 699.653,21 eurokoa da, eta eskaintzak aurkezteko epea 2025ko ekainaren 10ean amaituko da.

Proiektu hau Euskadiko EGEF 2021-2027 Programak kofinantzatuko du, 2.1 helburu espezifikoaren barruan: "energia-efizientzia eta berotegi-efektuko gasen emisioen murrizketa sustatzea".

Informazio gehiago: [Kontratazio Plataforma](#).

LIFE 2025 Deialdiei buruzko informazio-jardunaldi nazionala.

2025eko maiatzaren 27an egindako jardunaldia.

Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak eta Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuak (IDAE) antolatutako jardunaldia, Europako Batzordeko Klima, Azpiegitura eta Ingurumeneko Europako Agentzia Exekutiboaren (CINEA) laguntzarekin.

Informazio gehiago: [Jardunaldiaren agenda](#) (gaztelaniaz).

“LiburuBAI, jardura ekonomikoa duten pertsona fisikoen erregistro liburuak” kontratua lizitatu da.

Proiektu hori Euskadiko 2021-2027 EGEF Programak kofinantzatuko du.

2025eko maiatza

IzfeK (Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea) lizitatu du kontratua, eta haren jarduerak nagusia da zerbitzu informatikoak ematea Gipuzkoako Foru Aldundiari, foru sektore publikoa osatzen duten erakundeei eta hala eskatzen duten Gipuzkoako Lurralde Historikoko beste toki erakunde batzuei.

“LiburuBAI, jarduerak ekonomikoak duten pertsona fisikoen erregistro liburuak” proiektu honen helburu nagusia da Gipuzkoako zergadun enpresariak eta profesionalen zerga-betebeharrak betetzea erraztea eta sinplifikatzea, “TicketBAI” sistemaren bidez eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan ezarritako “big data” plataforma informatikoaren bidez denbora errealean lortutako fakturazio-datuak ustiapenetik eta prozesutik abiatuta.

Fakturazio-datuak eta zerga-informazioaren ustiapen- eta meatzaritza-sistema berri horri esker, Ogasun eta Finantza Departamentuko Zerga Kudeaketako Zuzendariordetzako zerbitzuak automatikoki egin ahal izango dute enpresariak eta profesionalak eraman behar dituzten nahitaezko kontabilitate-erregistroen liburuak ziritaratu, zerga-araudiak ezarritako eragiketarako erregistratzeko betebeharrak betetzeko.

Gipuzkoako Foru Ogasunak jardueren erregistro-liburuak eta BEZaren eta PFEZaren zenbait zerga-aitorpenen ziritaratu automatikoki egitea eta proposatzea zergadunarentzako laguntza-zerbitzu berri bat da, barne-kudeaketako denbora asko aurreztuko duena, enpresariak edo profesionalen jardueren eraginkortasuna areagotuko duena eta aitortu eta hornitzera behartuta dagoen kontabilitate-kudeaketako informazioaren ziurtasuna eta segurtasuna emango diona.

Jarduketari esker, zerga-betebehar horiek sinplifikatu eta murriztu ahal izango dira, eta, horretarako, operadore ekonomiko onuradunen kontabilitate- eta zerga-kudeaketako barne-kostuak eta -gastuak murriztuko dira, eta zuzeneko aurrezpen ekonomikoak eta enpresariak eta profesionalen lehiakortasuna nabarmen handituko dira.

Proiektuaren helburu zuzena administrazio lehiakorragoa, seguruagoa eta adimentsuagoa izatea da, zerbitzu digital berritzaileagoak eskaintzea ahalbidetuz.

Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 266.200 eurokoa da, eta eskaintzak aurkezteko epea 2025eko ekainaren 9an amaituko da.

Esku-hartzea Euskadiko EGEF Programaren 1. Helburu Politikoaren barruan kokatzen da: Europa lehiakorragoa eta adimentsuagoa; Helburu espezifikoaren barruan: 1.2. Digitalizazioaren abantailak aprobetxatzea herritarrentzat, enpresentzat, ikerketa-erakundeentzat eta administrazio publikoentzat.

Informazioa gehiago: [**Kontratazio Plataforma.**](#)

[**“EUROPAKO FUNTSAK GIPUZKOAN” webgunea**](#)